

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ESPAZIO PUBLIKOAREN ETA AUZOEN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2025eko maiatzaren 23ko erabakiaren laburpena: 2025ean Vitoria-Gasteizen salgaien hiri banaketan zein taxi-gidari lanetan aritzeko asmoz ibilgailu elektrikoak erosteko dirulaguntzen deialdi publikoa

BDNS (Identif.): 839153.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convo-catoria/839153>).

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurrei-kusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen kontsulta daiteke.

Lehena. Onuradunak

1. Taxi elektriko eskuratzeari dagokionez:

1.1. Vitoria-Gasteizko Udalak emandako taxi-lizentziatiko baten jabe diren pertsona fisiko edo juridikoak, baldin eta ibilgailu elektriko berri batekin ordeztzen badute lehendik lizentzia horri atxikitako ibilgailua.

1.2. Vitoria-Gasteizko taxi-elkarteak, baldin eta ibilgailu berri eta ehuneko 100 elektriko bat edo mugikortasun urriko pertsonentzat egokitutako ibilgailu berri eta ehuneko 100 elektriko bat edo ECO ingurumen-bereizgarria duena erosten badute, dela ordeztako ibilgailu gisa, dela zerbitzuak osatzeko asmoz.

2. Zama-bizikleta elektriko eskuratzeari dagokionez: salgaiak banatzeko lanak egiteko zama-bizikleta berri bat erosten duten pertsona fisiko edo juridikoak. Vitoria-Gasteizen jardun beharko dute; jarduera-lizentziaren edo Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren (aurrerantzean, EJZ) bidez egiaztatu beharko da hori.

3. Furgoi edo furgonetan elektriko eskuratzeari dagokionez: Gasteizen lan egiten duten pertsona fisiko edo juridikoak (jarduera-lizentziaren edo EJZren bidez egiaztatu beharko da hori), baldin eta furgoneta berri eta ehuneko 100 elektriko erosi edo renting zein leasing erregimenean furgoneta berri eta ehuneko 100 elektriko alokatzen badute, Vitoria-Gasteizen banaketa-lanak egiteko (ahal dela azken miliako banaketa-lanak). Horretarako, Emisio Gutxiko Eremura (aurrerantzean EGE) erregulartasunez sartzeko eskumena dutela egiaztatu beharko dute, deialdi honetan adierazitako moduan.

Bigarrena. Helburua

Hiriko ibilgailuen elektrifikazioa sustatzea, xede harturik airearen kalitatea hobetzea, eta kutsadura akustikoa eta berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko maiatzaren 23ko erabakiaren bidez onetsiak.

Laugarrena. Zenbatekoa

150.000,00 eurokoa da deialdiaren zuzkidura.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Aurrekontua agortu arte, edo 2025eko urriaren 15era arte.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 9a

Espazio Publikoaren eta Auzoen Saileko Administrazio burua
MARTA FONTECHA MÁRQUEZ